

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

64/2024 Foru Agindua, martxoaren 13koa. Kirol klub eta elkarteak mantentzeko eta emakumeen kirol federatua sustatzeko dirulaguntzen deialdia onartzea. 2024. urtea

Kultura eta Kirol Sailak kirol-klub eta -elkarteei ekonomikoki laguntzea aurreikusten du, horiek mantentzen laguntzeko. Gainera, deialdi honek emakumeen kirol federatua ere sustatu nahi du.

Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia) eta haren ondorengo aldaketan bidez, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren argitaratu zirenak, bidez oinarri orokor arautzaileak onartu zituen, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatzeko.

Kirol zerbitzuko buruak egindako txostena ikusita.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Emakumeen kirola sustatzeko eta lizentziak izapidetzeko klub eta elkarteentzako dirulaguntzen deialdia onartzea. 2024. urtea.

Bigarrena. Deialdi hau Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan eta martxoaren 2ko 7/2021 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko da. Dekretu horren bidez, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatu beharreko oinarri orokor arautzaileak onartu ziren..

Hirugarrena. Laguntza horiek Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu-aurrekontuko 70201. G/341700/48100718, "Kirol Klub eta Elkarteentzako Laguntza" aurrekontu-partidaren kargura ordainduko dira, gehienez ehun eta hogeita bost mila (125.000,00) euroko zuzkidurarekin (2024. ekitaldira luzatutako 2023ko ekitaldirako).

Laugarrena. Organo eskudunak, Kirol Zerbitzuaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan aurreikusitako moduan jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Dena dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzietarako

Epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 13a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

KIROL KLUBAK ETA ELKARTEAK MANTENTZEKO ETA EMAKUMEEN KIROL FEDERATUA SUSTATZEKO DEIALDIA, 2024. URTEA

1. artikulua. Xedea, helburua eta emateko araubidea

Deialdi honen helburua da Arabako kirol federazioei atxikitako kirol klubei eta elkarteei diruz laguntzea, haien finantzaketan lagunduz.

Helburua da diruz laguntzea Arabako kirol federazioei atxikitako kirol klubak eta elkarteak mantendu daitezen. Deialdi honen bidez, halaber, emakumeen kirol federatua ere sustatu nahi da, nabarmena baita Euskal Autonomia Erkidegoko kirol federatuan dagoen genero arrakala (2022an, emakumeen lizentziak guztizkoaren ehuneko 28,58 baino ez ziren).

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

2. artikulua. Aurrekontu egozpena

Ematen diren dirulaguntzen guztizko zenbatekoa ezin daiteke 125.000,00 euro baino handiagoa izan. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2024rako luzatutako 2023ko gastu aurrekontuko "Kirol klub eta elkarteentzako laguntza" izeneko 70201. G/341700/48100718 partidaren kontura ordainduko da.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

Onuradun izango dira Arabako kirol federazioei atxikitako kirol klub eta elkarteak.

Ez dira onuradun izango ez Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian eta haren osteko aldaketetan jasotzen diren baztertze egoeretan dauden erakundeak (Foru Dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak), ez Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikulua jasotzen dituen kasuetan daudenak ere.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Kirol klub eta elkarteek dirulaguntza jaso ahal izango dute kasuan kasuko Arabako federazioak 2023an emandako lizentzia federatuengatik. Arabako federaziorik ez badago, kasuan kasuko Euskadiko federazioak emandakoak izango dira aplikagarri.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Kirol klub edo elkarte bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du.

2. Eskaerak egoitza elektronikoa honetan eskuragarri dagoen berriarazko izapidearen bidez soilik aurkeztuko dira: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/subvenciones-mantenimiento-clubes-y-agrupaciones-deportivas>.

Horretarako, aldez aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa alde batera utzi gabe.

3. Eskaerak ez badira osorik formalizatzen edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta bada, erakunde interesdunari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta artxibatu egingo da, dagokion ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, Kultura eta Kirol Sailak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

4. Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, salbu eta erakundeak horren aurka egiten badu. Kasu horretan, hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen moduan (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

6. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta..

7. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Eskaerarekin batera, kirol klub edo elkarteak federazioaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, 2023an emakumeen eta gizonen zenbat lizentzia federatu izan zituen adierazten duena (eranskina).

2. Izanez gero, 8. artikuluan ezarritako irizpideen arabera baloratu ahal izateko, erakundearen berdintasun, euskara eta/edo ekitate planen ezarpenari buruzko dokumentazio hau aurkeztu behar da:

– Urte anitzeko plana. 2023. urteari edo 2023-2024 denboraldiari dagozkion ekintzak jaso behar ditu.

– 2023an edo 2022-2023 denboraldian egindako ekintzak eta lortutako emaitzak jasotzen dituen planaren memoria.

– Euskara sustatzeko konpromisoa egiaztatu nahi izanez gero, Euskara Planaren dokumentuaren orde, erakundearen euskarak duen presentziari, erabilerari eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri bat (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari) egiaztatu ahal izango da.

– Euskaliten “kudeaketa aurreratuko diploma”ren kasuan, hala badagokio, ez da beharrezkoa izango egiaztatzea, Arabako Foru Aldundiak zuzenean egiaztatu baitezake indarrean dagoen.

3. Kirol elkarten kasuan, kirol elkartearen izena adierazi beharko dute, eta dagokien erakunde nagusiaren estatutuak erantsi. Estatutu horiek aldez aurretik aurkeztu badituzte, zein unetan eta zein administrazio organotan aurkeztu zituzten adierazi beharko dute.

4. Erakunde eskatzaileak aurka egin ezik, Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakundeak honako baldintzak betetzen dituela:

– Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea. Arabako Lurralde Historikotik kanpoko erakunde eskatzaileek Ogasunaren kasuan kasuko ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

5. Erakunde eskatzaileak aurreko apartatuan adierazitako egiaztapenen aurka egiten badu, betekizun horien egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).

8. artikulua. Prozedura izapidetzea eta balioespen irizpideak

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientearen instrukzioa egiteko organo eskuduna.

1. Finantzaketa irizpideak ezartzeko, honako banaketa hau hartuko da kontuan:

– 1. maila. Beren jardunean honako hauek eskatzen dituzten modalitateak: entrenamenduak maiztasun handiarekin egitea (askotan egunero), ia astero lehiaketa izatea, horrek dakarren antolaketa nabarmenarekin.

• Atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, txirrindularitza, kirol egokituak, futbola, gimnasia, hockeya, euskal joko eta kirolak, igeriketa, euskal pilota, errugbia, mahai-tenisa eta boleibola.

– 2. maila. Entrenamendua maiz egitea eskatzen duten modalitateak, nahiz eta hori sarri askotan ez egon klubaren menpe, baizik eta kirolarien nahiaren menpe. Bestalde, lehiaketa maila nabarmen jaisten da aurreko apartatuaren aldean; izan ere, sarri askotan lehiaketak noizean behingo kirol topaketa batzuk eta Espainiako txapelketa batzuk baino ez dira izaten. Horrek guztiak ez du eskatzen antolaketa nabarmenik. Maila honetan sartzen da arabar eta aiarar bola jokoa, Euskal Herriko bertako modalitateei dagozkien diziplinak direlako (bertako kirol modalitateak sustatzeko kirol federazioei arreta eta laguntza emateko betebeharra ezartzen du Euskadiko Kirol Federazioen urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuak 6.3. artikuluan).

• Xakea, badmintona, Arabako eta Aialako boloa, boxeoa, esgrima, halterofilia, judoa, karatea, borrika, padela, irristaketa, squash, taekwondo, tenisa, arku tiroa eta triatloia.

– 3. maila. Entrenamendu arautuak eta seriatuak ez izatea ezaugarri duten modalitateak, non praktika interesdunen beraien mende dagoen. Lehiaketa noizean behin izaten da, eta horrelakoetan, aurreko ataletakoen aldean, oso txikia izaten da klubaren eskakizun maila. Hori gora-behera, horietako modalitate/espezialitate batzuetan, aisialdirako joera nabarmena ikusten da.

• Urpeko jarduerak, automobilismoa, beisbola, billarra, bola jokoa, ehiza, aire kirolak, negu kirolak, uretako eskia eta motonautika, golfa, hipika, mendia, motoziklismoa, petanka, piraguismoa, tiro olinpikoa eta bela.

2. Puntuak puntuazio baremo honen arabera banatuko dira:

• Izapidetutako edo emandako eta 1. mailako lizentzia federatu bakoitzari 15 puntu emango zaizkio.

• Izapidetutako edo emandako eta 2. mailako lizentzia federatu bakoitzari 5 puntu emango zaizkio.

• Izapidetutako edo emandako eta 3. mailako lizentzia federatu bakoitzari 1 puntu emango zaio.

3. Faktore zuzentzaileak aplikatzeko bete beharreko baldintzak:

IRIZPIDEA	FAKTORE ZUZENTZAILEA
a. Erakundeak Euskaliten "kudeaketa aurreratuko diploma" izatea bere egituraren funtzionamendua hobetzeko, eta diploma horren ziurtagiria indarrean izatea deialdi hau argitaratzen den egunean	1,15
b. Erakundeak euskara plan bat izatea eta hura inplementatzen aritza edo erakundearen euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri bat izatea (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari)	1,15
c. Erakundeak berdintasun plan bat izatea eta hura inplementatzen aritza	1,15
d. Erakundeak ekitate/inklusio plan bat izatea eta hura inplementatzen aritza	1,15
e. Sozietatearen egoitza Gasteizko udalerritik kanpo duten kirol klubak eta elkarteak	1,15

Euskara, Berdintasun eta Ekitate planen kasuan (atal honetako taulako b, c eta d atalak), dago-kion faktore zuzentzailea aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek hartu behar dira kontuan:

– Planak indarrean egon behar dira deialdi hau argitaratzen den egunean, eta 2023. urteari edo 2023-2024 denboraldiari dagozkion ekintzak txertatuta eduki behar dituzte.

– Planak hainbat urterakoak izan behar dira.

– Planak jasotzen dituzten agiriak jatorrizkoak izan behar dira eta erakundeen banakako analisien emaitza.

– 2023an edo 2022-2023 denboraldian egindako ekintzak eta lortutako emaitzak jasotzen dituen memoria bat aurkeztu beharko da planarekin batera.

– Planen eremuak (berdintasuna, euskara eta ekitatea) plan bakar batean sartu ahal izango dira, betiere ardatz bereizia izanda. Kasu horretan, planean garatutako eremuen faktore zuzentzaileak metatuko dira.

4. Balorazioa bereizita egingo da hauen artean: alde batetik, kirol klub edo elkarte baten lizentzia guztiak, eta, bestetik, emakumeen lizentzia kopurua. Hona irizpideak:

4.1. 95.000,00 euro banatuko dira erakunde bakoitzeko lizentzia guztien artean, emakumezkoenak zein gizonezkoenak izan:

4.1.1. Erakunde bakoitzaren lizentzia kopurua artikuluko honen 2. apartatuak maila bakoitzari ematen dion balorazioarekin biderkatuko da.

4.1.2. Aurreko apartatuan lortutako puntuazioa honako taula honen arabera dagozkion faktore zuzentzaileekin biderkatuko da:

4.1.3. Artikulu honetako 4.1 apartatuan adierazitako kopurua laguntza behar duten erakunde guztien puntuen baturarekin (artikulu honetako 4.1.1 eta 4.1.2 apartatuak aplikatuta) zatituko da. Zatiketa horretatik puntu bakoitzak izango duen balioa lortuko da.

4.1.4. Aurreko apartatuan lortutako puntu bakoitzaren balioa erakunde bakoitzaren puntuekin biderkatuko da, eta hortik aterako da atal honetan erakunde bakoitzari zuzenduko zaion laguntza.

4.1.5. Kirolaraba Fundazioaren goi mailako klubentzako laguntza jaso duten kirol klub edo elkarteek 0 puntu izango dituzte atal honetan.

4.2. 30.000,00 euro banatuko dira erakunde bakoitzak dituen emakumeen lizentzia guztien artean:

4.2.1. Erakunde bakoitzeko emakumezkoen lizentzien kopurua artikuluko honetako 2. apartatuak maila bakoitzari ematen dion balioarekin biderkatuko da.

4.2.2. Aurreko apartatuan lortutako puntuazioa artikuluko honetako 3. apartatuan adierazitako faktore zuzentzaileekin biderkatuko da.

4.2.3. Artikulu honetako 4.2 paragrafoan adierazitako kopurua laguntza behar duten erakunde guztien puntuen baturarekin (artikulu honetako 4.2.1 eta 4.2.2 paragrafoak aplikatuta ateratzen den emaitza) zatikatuko da. Zatiketa horretatik puntu bakoitzak izango duen balioa lortuko da.

4.2.4. Aurreko apartatuan lortutako puntu bakoitzaren balioa erakunde bakoitzaren puntuekin biderkatuko da, eta hortik aterako da atal honetan erakunde bakoitzari zuzenduko zaion laguntza.

4.3. Laguntzaren guztizkoa aurreko bi apartatuetan lortutako zenbatekoen batura izango da.

9. artikulua. Ebazpena

1. Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde hori eratzeko, kontuan hartuko da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10. artikulua. Honako hauek osatuko dute batzordea:

- Batzordeburua: Kirol zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetutako pertsona, eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari.
- Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona; hitza izango du, baina botorik ez.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz.

2. Ez da entzunaldiko izapiderik izango, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskaerak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Balioespen Batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, erakunde interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

4. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakundeei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan jasotzen dituen moduetan.

10. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Ebazpena eman ondoren ordainduko da dirulaguntza.

11. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira estatuko zein nazioarteko erakunde eta instituzio publiko edo pribatuek jarduerak edo programa bererako emandako beste laguntza batzuekin, baita Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren beste deialdi batzuekin ere. Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio dirulaguntza ematen duen organoari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duen edo eskuratzeko eskaerarik egin duen, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik.

12. artikulua. Publizitatea

- Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.
- Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian ere jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

13. artikulua. Erantzukizunak

Erakunde onuradunak beren gain hartuko dituzte deialdi honen xede diren jarduerak egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak, eta konpromisoa hartuko dute jarduerak egin ahal izateko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatzeko.


14. artikulua. Interpretazioa

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du deialdi honen interpretazioaren gainean sortzen den edozein zalantza.

15. artikulua. Araudi erregulatzailerak

Honako hauek arautuko dute deialdi hau:

- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzena.
- 3/2023 Foru Arau Orokorra, urtarrilaren 25ekoa, Dirulaguntzena.
- Ekitaldi honetarako indarrean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena; eta aplikatzekoa den gainerako araudia.
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duena.
- Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana (2022-2026).

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p>Klubentzako eta emakumeen lizentziarako laguntza ERANSKINA 2024 Ayuda a clubes y por licencias femeninas ANEXO</p>
---	---

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Behean sinatzen duen Arabako Federazioak

La Federación Alavesa abajo firmante

ZIURTATZEN DU**CERTIFICA**

ondoren zehazten den kirol klub edo elkartearen federazio honetan inskribatuta dagoela eta lizentzia kopuru hau izan duela 2023an:

que el club o agrupación deportiva que se detalla a continuación se encuentra inscrita en esta federación y que ha tenido las siguientes licencias en el año 2023:

Kirol kluba edo erakundea ■ Club o agrupación deportiva	IFZ ■ NIF

KONTZEPTUA ■ CONCEPTO	EMAKUMEA ■ FEMENINO	GIZONAK ■ MASCULINO
Izapidetutako eta/edo emandako lizentzia federatuen kopurua Número total de licencias federadas tramitadas y/o expedidas 2023		

Egiaztasun hobierako zuzendaritza
<https://e.s.araba.eus/arsi/portal/ConsultaCee>

FEDERAZIOAREN KIROI MODALITATEA FEDERACIÓN ALAVESA DE

Egiaztasun kodea Código de verificación
nZHc-3AVH-4jEK-Mkcz



ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA ■ SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA	Sinadura ■ Firma
--	-------------------------



Forma: CN=ZERBITZU ORKIDORREN ZUZENDARITZA, DIREKZIOAN SERBITZU GENERALEK, SERIALNUMBER=90100001, OU=SELLO ELECTRONICO ORGANIZATIBOEN IDENTIFIKAZIOA, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA, DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Forma de certificación: CN=EARLH-Harako Ingeles CA, CA personal de AMP (caso 12), OU=AZZ Zerbitzu publikoak, Certificado público SCA, O=ZERNPE S.A., C=ES
Número de serie: 231865
Fecha de emisión: 2024/07/11 11:49:34 Z